

Uharteko Udalak parte-hartze prozesu bat ireki du urtero herrian egiten diren **Aurrekontu Parte-hartzaileak** indartzeko eta bultzatzeko.

## NOLA PARTE HARTU?

### Talde eragilea

Herritarren talde eragile bat sortu da, urtetik urtera aurrekontu parte-hartzaileen funtzionamendua bermatzeko.

### Prozesu honen alde lan egin nahi baduzu, abisatu!

Informazio bilerara etorri edo ayuntamiento@huarte.es helbidera e-posta bidali.

### Jarduerak

#### 1. Informazio-bilera.

**Abuztuaren 25ean, 19: 00etan, kultur etxean.**

Proiektuak aurkezteko eman beharreko pausoak azalduko dira eta talde eragilean parte hartu nahi duenari harrera egingo zaio.

#### 2. Haurrentzako tailerrak.

**Abuztuaren 26an, 17: 00etan, igerilekuan.**

Txikiekin tailer ludiko eta sortzailea, Uhartek dituen beharrak, proposamenak eta ikuspegia ezagutzeko. (Adina: 5-12)

#### 3. Deriba.

**Irailaren 1ean, 18:00etan, udaletxean.**

Paseotxo kolektibo bat egingo dugu Uhartean, beharrak detektatzeko edo aurrekontu parte-hartzaileak bideratzeko ekimenak pizteko.

## PROIEKTUEN AURKEZPENA

### Proiektuak aurkezteko datak. Irailak 5 - 15

Abuztuaren 16tik proiektuak aurkezteko dokumentuak eskuragai Udalaren web orrialdean.

### Bozketen datak. Urriak 1-10

Dokumentazioa bidaliko da eta Udalaren web orrialdean eskuragarri egongo da.

## PROZESUAREN MUGAK

### Zenbat proiekturako izanen da diru hori?

- Batentzat edo batzuentzat, 60.000 euroak agortu arte.

### Nork proposa dezake?

- 2005/12/31 arte jaiotako Uhartean erroldatutako pertsonak.
- Uharteko elkarte eta taldeak.
- Udal langileak.

### Zer proposa dezaket?

- Eraikuntza lanak (berriak edo mantenukoak).
- Erosketa iraunkorrak (ekipamendua, altzariak, ...).
- Programak eta jarduerak.

### Nork bozka dezake?

- 2005/12/31 arte jaiotako Uhartean erroldatutako pertsonak.

### Zein irizpide jarraitu behar dute proposamenek?

- Juridikoa: legalak eta udal eskumenekoak.
- Teknikoa: egingarriak.
- Denborakoa: 2022an burutzekoak.
- Ekonomikoa: ezarritako aurrekontuarekin bat datozenak.

### Benetan erabaki dezakegu zer egin?

- Udalak konpromisoa hartu du Uharteko herritarren boto gehien jaso dituzten proposamenak 2022rako Aurrekontu Orokorrean sartzeko.

*Aurreko urtean proiektu baten onuradun izan ziren pertsonak, taldeak eta klubak ezingo dute proposamenik aurkeztu aurten.*

**Animatu parte hartzera!**